ITSASPEKO BIZITZA

OZEANOEK HARTZEN DITUZTE LURREKO AZALERAREN HIRU LAURDEN.

FUNTSEZKOAK DIRA EKOSISTEMARAKO ETA PLANETAKO BIZITZARAKO.

EURIA, EDATEKO URA, KLIMA... ETA ARNASTEN DUGUN OXIGENOA ERE HAIEN MENDE DAUDE.

ETA ATMOSFERARA ISURTZEN DUGUN CO_2-AREN ZATI BAT XURGATZEN LAGUNTZEN DIGUTE.

CO_2

OXIGENOA

GAINERA, ARRANTZA ELIKADURA ITURRIA DA ETA MILIOIKA PERTSONAREN BIZIGAIA DEN NEGOZIO ERRALDOIA ERE.

BAINA GURE OZEANOETAN GERO ETA HONDAKIN GEHIAGO DAUDE ETA HORREK ITSASOKO ANIMALIA GUZTIEI ERAGITEN DIE.

KORALEZKO ARREZIFEAK ARRISKUAN DAUDE GIZAKION PRESIOEN ONDORIOZ...

GEHIEGIZKO ARRANTZA GURE ITSASOETAKO BESTE ARRISKUETAKO BAT DA. KUDEAKETA OKERRAK ARRISKUAN JARTZEN DITU ESPEZIEAK ETA GALERA EKONOMIKO HANDIAK DAKARTZA ARRANTZAREN SEKTOREARENTZAT.

HERRIALDEEK HABITAT ZAURGARRIEN BABESEAN LAGUNDU BEHAR DUTE BIODIBERTSITATEA MANTENDU AHAL IZATEKO.

ETA ARRANTZAREN ETORKIZUN JASANGARRIA BERMATZEKO.

EREMU BABESTUA

KONTSUMITZAILE GISA, BEGIRUNETSUAK IZAN BEHAR DUGU OZEANOEKIN.

PRODUKTU ZIURTATUAK AUKERATU BEHAR DITUGU ETA BEHAR DUGUNA BAKARRIK KONTSUMITU.

AHAL DEN NEURRIAN, PLASTIKOA ERABILTZEA SAIHESTU BEHAR DUGU, ARRAINEN URDAILETAN AMAITZEN BAITU.

NIK, ASTEBURU HONETAN, HONDARTZAK GARBITZEN LAGUNDUKO DUT.

OZEANOAK